

txintxarri



Berotik ihesi, goxotasunera

Harrera ederra egin diote lasarteoiatarrek Hassanna, Jalil eta Ahmed gazte sahararrei / 2-3

TXINTXARRI

Kultura, kale eta plazetara

Antzerki, dantza eta zinema emanaldiak aire zabalean aurrera eramaten ari dira hilabete honetan / 7

Jaien balorazio ona egin dute Agustin Valdivia alkateak eta Festak saileko buru Txus Alonsok / 4

Errekalde-Galarreta bidegorriaren proiektua "estuegia" dela salatu du Eguzki Talde Ekologistak / 5

Eskolako materiala erosteko dirulaguntzak emango dizkie udalak herriko familiei / 6

Donostia Arraun Lagunak-ek bi garaipen erdietsi eta Euskotren Ligako buru mantendu da / 10

Igande arratsaldeko saioak modu paregabe hasi dira Donostiako Hipodromoan / 11

Meza, luntxa, dantzaldia, desfilea eta parodia antolatu dituzte aurtengo Santa Ana egunerako

MERKEALDIA

2 MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



multiópticas

943 37 74 55


Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





Ohi bezala udal ordezkariak harrera instituzionala egin diete uda Lasarte-Orian igaroko duten gazte sahararrei. TXINTXARRI



Hiru gazteak, Isaak begiralea ondoan dutela, Saharako bandera eskuetan. TXINTXARRI



Alkateak, udalaren izenean, opari bana eman die. TXINTXARRI

Harrera beroa egin diete, herrian udako egonaldi goxoa izan dezaten

Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteko Udako Txokoetako gazte zein begiraleek harrera beroa egin diete uda Lasarte-Orian igaroko duten Hasana, Ahmed eta Jalil gazte sahararrei. Oparitxoak ere jaso dituzte erakundearen eta eragilearen partetik

Udal ordezkariak harrera egin diete, berriki, udako bi hilabeteak Lasarte-Orian igaroko dituzten gazte sahararrei. Hasana, Jalil eta Ahmed gazteak etorri dira herrira aurren.

Agustin Valdivia alkateak hitza hartu du protagonistei ongietorria emateko; poza agertu die herrira etorri direlako, eta, aldi berean, eskertuta agertu da hori posible egin duten harrera familiekin. Hondartzara joan ote diren galdetu die hiru gazteei, gaztelaniaz, eta Isaak begiralearen (Euskal Herrian bizi den sahararra da) laguntzarekin erantzun dute baietz edo ezetz. Harrera familietako kideak ere bertan izan

dira, eta horiei zer moduzko esperientzia izaten ari den ere galdetu die Valdiviak; horien bizipenen berri izan du.

Hitzartzea amaituta, opari bana jaso dute hiru gazteak alkatearen eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez eskutik eta talde argazkia atera dute. Udalak 10.000 euro bideratu ditu programa horretara.

Ostean, denak elkarrekin Okendo plazara joan dira. Ordurako bertan ziren Ttakun Kultur Elkarteko Udako Txokoetako haur eta begiraleak, eta horiek egin diete bigarren harrera. *Aurrekua* dantzatu diete lehenik, eta Pirritx, Po-

rrotx eta Marimotots sudurgorrien *Iritsi da eguna* kanta gero. Amaitu aurretik erregalu bana eman die txokoetako koordinatzaileak.

Aisialdia eta osasuna

Gazte sahararrak ekainaren 30ean iritsi ziren Euskal Herrira. Egondiak iraun bitartean aisia jardueraz gozatu eta bertakoekin

**EKAINAREN 30EAN
IRITSI ZIREN HERRIRA
ETA ABUZTUAREN
29RA ARTE EGONGO
DIRA BERTAN**



Ttakuneko Udako Txokoetako lagunek 'Aurrekua' eta 'Iritsi da eguna' abestiak dantzatu eta eskaini dizkiete. TXINTXARRI

harremantzeaz gain, bestelako eginbehar eta ardurak ere izango dituzte horien harrera familiek. Zenbait osasun azterketa egingo dizkiete gazteei, eta dentista zein oftalmologoez ere artatuko dituzte. Igeri egiten ikasteko oinarrizko ikastaroan ere arituko dira; Maialen Chourraut kiroldegian jasoko dute ikastaldia. Azken hori "oso beharrezkoa" dela nabarmendu dute harrera familiek.

Abuztuaren 29an itzuliko dira Tinduf-eko errefuxiatuen kanpamentuetara, baina egun hori irtsi bitartean, denbora dute euskal kulturaz, gastronomiaz, eta harrera familia eta inguruko enberotasunaz gozatzeko. Bien bitartean, gazte horietakoren batekin topo egiten baduzu, irakurle, komunikazioan lagun dezakeen hiztegitxo bat argitaratu dugu (ikus eskuineko taula). Saharar Herriarekin Elkar-kideak diren Institutzioetako Koordinatzaile Txomin Aurrekoetxea Izak egin du.



Udako txokoetako koordinatzaileak ere oparitzo bana entregatu die hiru gazteei. TXINTXARRI



Ttakunen txokoetan parte hartzen ari dira hiru gazte sahararrak. TXINTXARRI

EUSKARA

HASSANIA

AGURRAK	AS-LAM
Kaixo	As-salamu âalikum
Agur /Adio	Maâa as-salama / Mahabas
Ongi etorria (k)	Marhaban wa sahlân
Zer moduz zaude?	Ash-kkif halak?
Ondo nago, eskerrik asko	Labas / Shukran
Egun on	Asbah aljair
Arratsalde on	Amsâ aljair
Gau on	Leila saâida
Ni Ali naiz	Ana Ali
Saharakoa naiz	Ana saharai
HITZ ETA ESALDI ARRUNTAK	KALIMAT WA YUMAL SHAMILA
Bai	Yaheh
Ez	La / Abdai
Inoiz	Abadan / Muhal
Beti	Daiman
Mesedez	Menfadlak / Menfadlek
Eskerrik asko	Shucran
Ez horregatik	La shucra âla wayeb
Barkatu	Asmahly
Hemen	Haun
Hemendik	Men haun
Etxean	Fi ad-dar
Etxetik	Mina ad-dari
Entzun!	Es-sanat / Asmaâ



Zozketa!

KOÖL STUDIO dendan erabiltzeko 30 euroko BONUSA zozkatuko dugu izena ematen duzuen bazkideen artean.

Bazkide zara?

harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943-37 14 48 zenbakira deituta eta 646 82 44 66 (whatsapp)



- Emakume sortzaileen txokoa
- Bertako bitxiak eskulanak
- Poltsak, motxilak, turbanteak
- Bertako kosmetika naturala
- Haurrak: jolasak eta osagarriak



Jaien gaineko balorazio positiboa egin du udalak

Igaro berri diren San Pedro Jaien balantze ona egin du udalak. Iragarritako guztia ongi joan dela" nabarmendu dute Agustin Valdivia alkatea eta Festak saileko arduradun Txus Alonsok. Erregistratu diren esku hartzeen datuen berri ere eman dute

Txintxarri

Sanpedroen balorazioa egin du Lasarte-Oriako Udalak berriki; "pozik" agertu dira Agustin Valdivia alkatea eta Festak saileko zinegotzi Txus Alonso.

Alkateak "dena primeran joan dela" azaldu du, eta, gaineratu, eguraldia izan dela traba bakarra. Azpimarratu du "oso fuerte" hasi zirela herriko jaiak: "Lehen egunean ematen zuen dena egun horretan gertatuko zela: danborrada, I love 80 taldearen emanaldia, ETSren kontzertua. Festen hasiera gogorra izan zen".

Adierazi du baita ere Lasarte-Oriako jaien nolokotasunetako bat dela askotariko adinetako herritarrentzat jarduerak egotea,aldi berean: "Gauetan ere, adinaren arabera lau espazio ezberdinetan banatzen dira musika saioak. Horietako bakoitza nahiko ondo definituta dago. Aurten ekarri ditugun musika taldeekin bete-betean asmatu dugula uste dut; arrakastatsua izan dira". Berarentzat aurtengo sanpedroetako sorpresa Maruja Limon taldea izan dela aipatu du: "Izugarri gustatu zitzaidan, baita une horretan nirekin zeudenei ere".

Datuak, xeheago

Alkatearen hitzartzearen ostean Festetako zinegotzi Txus Alon-



Ezker-eskuin: Festak saileko zinegotzi Txus Alonso eta Agustin Valdivia alkatea. TXINTXARRI

sok hartu du hitza; jaien balorazioa eta zenbait datu eman ditu, xeheago. Eguraldiak zenbait unetan lagundu ez zuen arren, "pozik" agertu da hori ere festak igaro diren moduarekin: "Eguraldia medio zenbait jarduera lekuz aldatu edo moldatu behar izan genituen, hala nola, herri kirolak, helduentzako antzerkia eta puzgarriak, baina horiek ere aurrera egitea lortu genuen". Horren harira, aipatu du datorren urteko egitarauan zehaztuta agertuko dela

eguraldi txarra eginez gero jarduera nora lekualdatuko den. Jende gehien bildu zituzten egunak ostirala eta larunbata izan zirela ere esan du, eta, azaldu, eskaini diren berrikuntzek ondo funtzionatu dutela. Datuak ematen hasi aurretik, datorren urteko festak prestatzeko lanetan hasi dela jakinarazi du.

Koordinazio lana

Aurtengo jaiak aurrera eramateko Festak departamen-

tuaren, udaltzaingoaren, Ertzaintzaren eta Gurutze Gorriaren arteko "koordinazio lan handia" balioan jarri du Alonsok. Horren bitartez gerta zitezkeen intzidentzien aurrean "ahalik eta erantzun oso eta azkarrena" emateko asmoz egin dute koordinazio lan hori. Hauek dira eragile horien esku hartzeek erregistratuta utzi dituzten datuak.

137 esku hartze erregistratu ditu poliziak guztira. Horietatik guztietatik 28 herri segurtasunarekin lotuak, lau trafikoko istripu, sei salaketa jasotze eta bost pertsonen aurkako gertakari. Eraso matxista batengatik esku hartze bat, eta integritatearen aurkako lau ere jazo dira. Eraso matxistaren gainean esan du ekainaren 28an gertatu zela eta protokoloaren arabera jokatu zutela: "Unean bertan geldiarazi zuten, erasotzailea atxilotuz".

Oriarte Landaberriko gazteen espazioa segurtasun langileek kontrolatu dute aurten: "Hezkuntzaren esparru batean aurrera eramandako adingabeei zuzendutako jarduera bat izanik, eremu horretan alkohola kontsumitzea debekatu egon da. Bertara joan direnak alkoholdun edaririk gabe sartu direla ziurtatu dute segurtasun langile horiek". Horrek zaborrari dagokion datu bat ere utzi du; iazko datuarekin alderatuz, espazio horretan bildutako zaborra %5 gutxitu dela jakinarazi du Alonsok.

Gurutze gorriaren egoitzan berehalako arreta espazio bat martxan izan zuten. Bertan larrialdietako teknikari bat eta mediku bat egon ziren:

"Edozein gertakariri erantzun azkar bat eman asmoz jarri genuen martxan hori, eta 112 larrialdi zerbitzua arintzeko helburuarekin ere bai".

Koordinazio lan horren xedeak bete direla uste du zinegotziak, eta horri dagokionez ere "pozik" agertu da. Gaineratu du badaudela hobetu daitezkeen gauzak, eta hala egingo dutela datozen urteetarako.

Gurutze Gorriak honako datu hauek erregistratu ditu: 11 esku hartze zauriengatik, erreakzio alergiko baten ardatzea, bi intoxikazio etiliko eta ospitaleratze bat.

Eragileei eskerrak

San Pedro Jaiak posible izan daitezkeen lanean aritu diren eragile guztiei eskerrak eman dizkiete udal ordezkariak. Horiekin batera, udaltzaingo, Ertzaintza eta Gurutze Gorriarekin ere eskertuta agertu dira, baita udal brigadako langileekin eta udal teknikariek ere: "Horiek guztiak sanpedroetako pieza garrantzitsuak dira; denei dedikazio eskertu nahi diegu.

137 ESKU HARTZE ERREGISTRATU DITU POLIZIAK AURTENGO SAN PEDRO JAIETAN

ORIANTE LANDABERRIKO GAZTEEN ESPAZIOAN IAZ BAINO % 5 ZABOR GUTXIAGO BILDU DUTE

Erakusketa bat ikusgai Jalgin

Jalgi Kafe Antzokia kulturaren topagune ere bada eta horren erakusgarri da Mari Jose Martin *Alma Guida* artista lasarteoriatarrek jarri berri duen erakusketa. Bere zenbait margolan jarri ditu taberna horretako hormetan: itsasoa, hondartzak eta bestelako paisaiak eraman ditu koadroetara, besteak beste.



TXINTXARRI

Karmenetan, herri meza

La Esperanza Auzo Elkarateak jakinarazi du herri meza bat egingo duela hilaren 16an, asteartearekin, Karmengo Ama Birjinaren eguna ospatzeko. Eguerdiko hamabietan izango da elizkizun hori, Oria auzoko parrokiaren. Eragile horretako kideek lasarteoriatar guztiak animatu dituzte ekimen erlijioso horretan parte hartzera.



TXINTXARRI



Bidegorria GI-2132 errepide ertzean joango da, Errekaldeko biribilgunetik Galarretako errotondaraino. EGUZKI

Errekalde-Galarreta zatia, "behar baino estuagoa"

Eguzki Talde Ekologistak jakinarazi du berriz ere jendaurrean jarri duela Gipuzkoako Foru Aldundiak Errekalde-Galarreta bidegorri egitasmoa, aldaketa batzuk egin ostean. Zati estuenak zabaldua ere, bi norabideko bideak hiru metro dituzte zabal eta lau behar dituzte

Txintxarri

"Txisteetan bezala, bi albiste eman behar dizkizuegu Errekalde-Galarreta bidegorri proiektuari buruz: ona bat eta txarra bestea". Eguzki Talde Ekologistak azpiegitura horri buruzko iritzia eman du, Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo hori berriz ere jendaurrera atera duela iragarri ostean.

"Lehendabizi, albiste txarra, garrantzitsunea iruditzen baitzagu: proiektuak jarraitzen du behar baino estuagoa izaten, izan ere, hiru metro zabal baino ez ditu alde batetik bestera", azaldu du Eguzkik. Distantzia horrek ez du betetzen Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planaren zein Gipuzkoako Bizikleta Bideen Eskuliburuan jasotakoa, txirringulariek eta oinezkoek partekatutako bi norabideko ibilbideek gutxienez lau metro zabal behar dutelako ezkerretik eskuinera. "Gero eta zabalera gutxiago, orduan eta arazo gehiago izateko aukera erabiltzaileen artean".

Berri ona, aldiz, hauxe da: bidegorriak batez beste hiru metro zabal izanagatik, zati batzuetan "nabarmen" estutzen zen, 1,80 metrora estutu ere. "Foru Aldundiak jendaurrera atera duen proiektu berrian desagertu egin dira eremu horiek". Eguzkiren iritziz, hori posible izan da aurreko egitasmoa egiteko "oinarriko irizpideetako bat" militarrek Lore Tokin dituzten lursailak ez ukitzea zelako. Erakundeak argitara atera duen proposamen berrian "malgutu" egin du baldintza hori. Ildo horretatik, eragile ekologistari "adierazgarria" iruditzen zaio bi txostenen arteko aldea: lursail horietan "inolako eraginik" ez izatetik, "inpaktuak leuntzeko

GIPUZKOAKO BIDEGORRI SAREA "BARRASKILO ABIADURAN" DOALA SALATU DU EGUZKIK

neurriak" hartzera. "Aurreko proposamena idatzi zutenek bidegorria nahitaez eta ahal bezala enkajatu behar zuten GI-2132 errepidearen eta militarren finakaren artean, bata zein bestea ukiezinak zirelarik: horra proiektatutako bidegorriaren zabalera zeharo desegokiaren arrazoia". Arestian esan bezala, Eguzkik zehaztu du baldintza horiek "malgutu" egin dituztela: "Memoriatik, behintzat, 1,80 metroko zati estuen aipamena desagertu da".

"Atzerapen handia"

Eguzkik deitoratu du "atzerapen handia" duela Errekalde-Galarreta bidegorri zatiak. "Zehazki, 2021etik zerbitzuan egon behar zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri zuen hurrengo urteko udararako Chillida Leku museoraino behintzat eginda egongo zela baina ez zuten bete eta horrela jarraitzen du". Halaber, Gipuzkoako Oinarrizko Bidegorri Sarea "barraskilo abiaduran" doala salatu du.



Izokin birpopulatzeko proiektua abian du Gipuzkoako Foru Aldundiak. TXINTXARRI

Foru Aldundiak 15.000 izokin askatu ditu Orian eta Urumean

Izokinak birpopulatzeko proiektuari esker, urtero ehun espezie inguru sartzen dira Oria eta Urumea ibaietan

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen haztegieta jaiotako 15.000 izokin askatu ditu erakundeak, berriki, Oria eta Urumea ibaietan. Askatze hori *Natura 2000 Sarea* proiektuaren barruan kokatzen da, eta lurraldeko biodibertsitatea babestea du helburu.

Izokin arruntaren berreskuratzea 1990. hamarkadan hasi zen, Gipuzkoako ibaietatik erabat desagertu ostean, aurreko hamarkadetan bizitako industrializazioak eragindako ur kutsaduraren ondorioz. Horrela, azken

hogeita hamar urteotan egindako lanaren ondorioz, gaur egun, lurralde horretako ibaiak espezie horretako aleak dituzte, eta urtero itsasoaren ehun inguru sartzen dira ibaietara ugaltzeko. Ekainean eta uztailean izokin handiak sartzen dituzte; aurten hogeita hamar sartu dituzte Orian eta 27, berriz, Urumean.

Espeziea birpopulatzeko egiten ari den lanaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundia, lurraldeko biodibertsitatea zaintzeko eta berreskuratze apustuan, LIFE Kantauribai proiektuan murgilduta dago.

Enpresako eraginkortasun energetikoaz jardun dira

Enpresen iraunkortasuna lantzeko prestakuntza saioa aurrera eramane du Beterri Buruntza Mankomunitateak, Mirentxun

Txintxarri

Ekonomia berdea enpresaren lehiakortasunerako programaren baitan, Mankomunitateko kide diren herrietako enpresen iraunkortasunarekin zerikusia duten arlo ezberdinak lantzen hasteko asmoz, sektore ekonomiko zehatzei zuzendutako elkarrizketak eta prestakuntza saioak aurrera eramane ditu Beterri Buruntza Mankomunitateak.

Elkarrizketa horien bidez eskualdeko eragile ekonomiko ezberdinek dituzten ingurumen izaerako beharrak eta kezkak

ezagutu nahi izan ditu mankomunitateak, horiei erantzuteko gai diren eskualde mailako ekimenak abiarazi ahal izateko. Saio horrek energia izan du ardatz eta ekonomia zirkularraren kontzeptua ulertzeko gakoak ere eskaini dizkiete bertaratu direnei. Lehenik, partaideei elkarrizketa bat egin diete, enpresetan energiaren inguruko kudeaketarekin zerikusia duten ezagupenak zer nolakoak diren eta kezka nagusiak zeintzuk diren ezagutzeko; ondoren, sektorearen ezaugarriekin bat datorren formakuntza eskaini diete.

Eskolako materiala erosteko laguntzak

Udalak jakinarazi du 110, 80 edo 50 euroko ekarpenak egingo dizkiela urtean 40.001 euro baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten familiei, datorren ikasturte akademikorako koaderno, estutxe eta bestelako tresnak eskuratzeko

Txintxarri

Lilura liburudendan elkartu dira Agustin Valdivia alkatea, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kudeatzaile Mikel Muñoz eta saltoki horren jabe Oihana Izpura, 2024-2025 kurtsorako materiala erosteko dirulaguntza deialdiaren xehetasunak esplikatzen. Urtean 40.001 euro baino gutxiagoko sarrerak dituzten familiek izango dute eskatzeko aukera: 25.000 euro baino gutxiago irabazten dituztenek 110 euro jasoko dituzte; 25.001 eta 33.000 euro artean dabilzanek, 80; eta, azkenik, 33.001 eta 40.000 euro artean ingresatzen dituztenek, 50. Koaderno, estutxe, arkatx eta bestelakoak udalerriko dendetan erosi beharko dituzte irailaren 30a baino lehen. Eskakerak, berri, irailaren 2tik 30era bitartean egin beharko dituzte. Eskatzailak eta ikasleak Lasarte-Orian erroldatuta egon beharko dute, aurtengo urtarril hasieratik gutxienez.

Dirua jaso ahal izateko erosketatik eta fakturak aurkeztu beharko dituzte herritarrek eskaera orriarekin batera. Tramieta sarean egiten badute, aipatutako agiri horiek eskaneatu eta elektronikoki sinatu beharko dituzte.



Ezker-eskuin: Oihana Izpura, Agustin Valdivia eta Mikel Muñoz. LASARTE-ORIAKO UDALA

Aipatu egitasmo horren helburuak dira eskolan ikasten duten haurren familiei laguntzea eta eskolako materiala herriko establezimenduetan erostea sustatzea.

Honako erosketak hauek lagunduko ditu diruz udalak: idazmahairako materiala, eskolako arropa, edo optometriarako, kirolerako nahiz jarduera artistikoetarako tresnak. Horrez guztiaz gain, berrikuntza gisa, informatikarekin zerikusia duten objektuak ere sartu ditu deialdian erakundeak.

Gaztelekuan entseatzeko

Herriko musika taldeek aukera dute Gaztelekuko entsegu aretoa eskatzeko bihar (hilak 13) baino lehen. Erreserbak egiaztatuko ditu udaleko Gazteria sailak eta bilera bat egingo du eskatzaileekin hilaren 17an, 10:00etan, Gaztelekuan bertan.



TOKIKOM

Gai soziokulturalak lantzeko

Eusko Ikaskuntzak eta Tokikom Tokiko Hedabideen Bateraguneak akordio bat izenpetu dute "egoera soziokulturalari eragiten dioten gaiak gizarteratzeko". Horretarako, bi erakundeek ezagutza trukatzeko eta elkarren lan batzordeetan parte hartzeko konpromisoa adierazi dute, ekarpen adierazgarriak egin ditzaketen kasuetan.



TXINTXARRI

Bertsoekin jolasean

Udaberriko bertso jasa, bat-bateko jolasa saioa aurrera eramán dute berriki Ttakunenean. Lierni Rekondo eta Iker Ormazabal Tturko bertsolariak diziplina hori zertan den azaldu diete ekimenera bertaratu diren haurrei. Ikus-entzule ez ezik, jarduerak iraun bitartean partaide aktibo izan dira gaztetxoak. Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta dute, elkarlanean.

Gidabaimena euskaraz ikasteagatik saritua

400 euroko saria eskuratu du Irune Erauskin herritarrak gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikasteagatik

Txintxarri

Iaz gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atera zutenen Lasarte-Oriako zozketaren garailea Irune Erauskin Mirasolain izan da; hori ordaintzeko erabilitako 400 euroak itzuliko dizkiote.

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ikasi eta azterketa euskaraz egitea bultzatu asmoz Buruntzaldeko sei udalek (Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil) 2009. urtean egitasmo ba-

teratua jarri zuten abian eskualdeko autoeskolekin lankidetzan. Egitasmo horren bidez, Buruntzaldeko herritarrei, batez ere gazteei, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko aukera dutela jakinarazten zaie, eta pizgarri moduan, aipatu eskualdeko azterketaren atal hori gaintitzen dutenen artean, gehienez 400 euroko sariak zozkatzen dituzte herri bakoitzean dagoen autoeskola kopurua aintzat hartuta.



Jon Antxordoki Euskara batzordeburua eta Irune Erauskin saritua, elkarrekin. TXINTXARRI



Panta Rhei taldeak 'Izarren hartza' antzezlanaren emanaldia egin zuen Askatasunaren parkean. TXINTXARRI

Kultura, udalerriko kale eta plazetara asteotan

Hilabete honetako agendako jarduerak aurrera eramaten ari dira: antzerkia, dantza, zinema... Manuel Lekuona Kultur Etxea izan ohi da ikuskizun horien topaleku baina udal ordezkariak erabaki dute aire zabalean aurrera eramatea emanaldi horiek

Txintxarri

Hilabete honetako kultura egitasmoak diziplina desberdinetakoak izanagatik, badute ezaguri amankomun bat: kalean izango direla. Horren adibide izan dira Okendo Zinema Taldeak hilaren 4an proiektatutako *Pride* filma eta hurrengo egunean Panta Rhei taldeak egindako emanaldia, *Izarren hartza* an-

tezlanarena. Azken ikuskizun hori Kale Antzerkia Bultzatuz egitasmoaren barrukoa izan da, Lasarte-Oriako Udalak burutzen duena Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Aipatu konpainia horrek baso bilakatu zuen Askatasunaren parkea, Irdin hartza kume abandonatuaren istorioa kontatzeko. Lorategiko gune batetik bestera joanez antzeztu

zuten, eta Hamelingo flauta jozailearen pareko, eskusoinuarekin testu gabeko kontakizuna girotu zuen kideak erakutsi zien bidea ikusleei. Protagonista bere lekuaren bila dabil, zoriontsu bizitzeko aukera emango dion familia eta etxe bat topatu nahian. Bidean urtxintxa baten lagun egingo da, putrea eta oreina ezagutuko ditu eta beldurtzen

Alboka Abesbatzak ederki amaitu du ikasturtea Ordizian

Emotio taldearekin batera emanaldia eskaini du Jasokundeko Andre Mariaren parrokiari

Txintxarri

Alboka Abesbatzak hilaren 6an Ordizian eman zion amaiera ikasturteari Emotio taldearekin batera. Abenduan hasi zen elkartrukea ere itxi zuen Lasarte-Oriako koruak era paregabean. Gabonetan Ordi-

ziako ahotsak entzuteko aukera izan zen Ama Brigitarren komentuan; oraingoan, Ordiziako Jasokundeko Andre Mariaren parrokiari izan da herriko taldea.

Emotio euskal konpositoreek moldatutako doinu herrikoietan

oinarritutako egitarauarekin hasi zuen emanaldia. Kim Andre Arnesen-en *Magnificat* eskaini ostean eman zion testigua Lasarte-Oriako taldeari. Euskal Herriko zein nazioarteko doinuez bete zuten eliza Albokako kideen ahotsak eta Amaia Dorransoro izan zuten pianoan lagun *Imanolen hiru abesti* edota *Durme, durme* abesterakoan.

Amaitzeko bi abesbatzak batu eta *Txoria Txori* eskaini zuten. Ostean, entzuleen txaloak eskertzeko *Maitia, nun zira* eta *Agur Jaunak* ere kantatu zituzten.



Dozenaka herritar bertaratu ziren Okendo plazara. TXINTXARRI

Lehenengo emanaldia, 'Pride'

Udako zikloari ekin dio Okendo Zinema Taldeak berriki, *Pride* filma proiektatuta Okendo plazan. Hurrengo emanaldia hilaren 18an izango da, ostegunarekin, toki berean, 22:00etan. *Indiana Jones y el dial del destino* ikusi ahaliko dute bertaratzen direnek.

duen otso zuriari aurre egin beharko dio. Adi-adi jarraitu zuten ipuina bertaratu diren haurrek, eta, aukera izan zutenean, animaliekin "jolasean" ere aritu ziren.

Kale Antzerkia Bultzatuz egitasmoaren barruan beste bi emanaldi egingo dituzte: Ganso&Cia-k *Welcome&Sorry* antzezlanaren ikuskizuna aurrera eramango du gaur, hilak 12, Okendo plazan, 19:00etan; eta, astebeite geroago, *Lanean jarraitu 75 urterarte!!!* toki eta ordu berean, Barsanti Teatroa konpainiaren eskutik.

Dantza eta Santa Ana

Antzerkia soilik ez, dantza ere hauspotu nahi du udalak eta Kale Kultura izeneko zikloa aurrera eramaten du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin

elkarlanean. Aldizkari hau inprentara bidaltzeko unean ekin zion Laia ikuskizunari Alurr Dantza Taldeak, atzo, hilak 11. Joan den mendeko giroan oinarritutako eszena desberdinak erakutsi zituzten dantzariak, herritarrek erabiltzen zituzten lantresna eta erremintak oinarri hartuta.

Abuztuari ongietorria egin aurretik, ohi bezala, Santa Ana eguna ospatuko dute lasarte-riatarrek hilaren 26an. Motorrak berotze aldera 39. Artisautza Azoka antolatuko du udalak 21erako, Okendo plazan. Jakinarazi du 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara artekoa izango dela postuak ikusi eta salgaiak erosteko ordutegia. Hilabeteko azken ostiralean, aldiz, meza, dantzaldia, desfilea eta parodia egingo dituzte.



Alboka Abesbatzako kideak, emanaldiaren ostean. ALBOKA ABESBATZA



Haxe da kutxako giltzarrapoa.



Giltza

Mari Purtzilen altxorren kutxa zabaltzeko, giltzarrapoaren giltza behar da. Zein da? Aurkitu nahi baduzu, formari erreparatu behar diozu.


Han eta Hemen

Badira hogeitau gauza bi irudietan ageri direnak. Ea aurkitzen dituzun.




SOSLaia Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?






ALTxorrak

Baina zer gordetzen ote du Mari Purtzilek giltzapean? Hizki zopa honek esango dizu. Bila ezazu ongi eta bederatzi elementu aurkituko dituzu: hiru jateko dira; bi, apaintzeko; bi, jolasteko; bat, jotzeko; eta beste bat, jantzeko.




Dadoa

Zortzi dado hauetatik lau beheko irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



Labirintoa

Lagundu ahate arrari ahate emarekin elkartzen, urmalean.



Donostia Arraun Lagunak, Ligan nagusi

Aiora Belartieta eta Nahia Goenaga herritarrak kide dituen Lugañenek Donostia eta Zierbenako jardunaldietan bandera altxa eta Euskotren Ligako buru da. Intza Fernandez Hondarribia Bertako Igogailuak ligako bosgarren postuan mantendu da

Txintxarri

Donostia Arraun Lagunak geldiezin dago. Ligako hirugarren eta laugarren jardunaldietan ere nagusi izan da Lugañene eta sailkapen buru da Tolosaldeari bost puntuko aldea aterata. Intza Fernandez kide duen Hondarribia Bertako Igogailuak, aldiz, bosgarren postuan mantendu da.

Etxean jokatu zuten lehen saioa Aiora Belartieta eta Nahia Goenaga kide dituen eskifaia; hilaren 6an, VIII. Fabrika Bandera lehiatu zen Donostiako Kontxako badiako uretan.

Lehen txandan Hondarribia Bertako Igogailuak Cabo da Cruz, Tiran eta Hibaikarekin batera parte hartu zuen eta Donostia Arraun Lagunak, Tolosaldea, Orio Orialki eta Nortindal Donostiarra bigarrenen borroka ziren.

Cabo da Cruz izan zen garaile lehenean; hasieratik buru jarri zen eta Ama Guadalupekoak saiatu arren, ezin izan zuen Galiziako ontzia gainditu. Beraz,



Aiora Belartieta brankan, Zierbenan ziboga prestatzen. EUSKOTREN LIGA/ A. ARRIZABALAGA

bigarren amaitu zuen saioa eta sailkapen orokorrean seigarren izan zen.

Bigarren txandan, lehia estua egon zen estropadako lehen luzean. Orio Orialki hartu zuen aurre eta Donostia Arraun Lagunak eta Tolosaldea gertu zituen. Bi ontziek mirotzak gainditu zituzten zibogara bidean eta ziboga egitean zortzi segundoko aldea atera zion Lugañenek

Tolosaldeako eskifaia. Orio Orialki bigarren luzean errenta murriztu arren, zibogako postuak mantendu zituzten helmugan eta 12.53,38 eginez garaile izan zen Donostiako ontzia.

Lugañene, garaiezin

Hurrengo egunean ere Donostia Arraun Lagunak aurkari berak izan zituzten Zierbenako (Bizkaia) IV. Edinor banderan eta berriro

ASTEBURUKO HITZORDUAK

PALA

SANTA ANA TXAPELKETA

Santa Ana Pala txapelketako neurketak jokaten ari dira.

Astelehen, asteartea eta ostirala. 18:30. Loidibarren pilotalekuan.

PILOTA

ZIKUÑAGA PAPELERA, 2. SENIOR

Intzako Peru Urdanpilleta Zikuñaga Papelera txapelketa jokatzeko ari da Ospeleko Albenizekin batera.

Hernanin.

TXIRRINDULARITZA

ARRATEKO IGOERA

Caja Rural-Alea taldeko Beñat Carbayedak herritarrak Arrateko igoera proban parte hartuko du.

Larunbata. 09:30. Eibarren.

ANTZUOLA SARIA

Lete Oroimenezkoa - Antzuola saria proba lehiatuko du Caja Rural-Alea taldeko Beñat Carbayedak herritarrak.

Igandea. 09:10. Antzuolan.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko hirugarren jardunaldia jokatu da. Sei lasterketa izango dira, horien artean Donostia San Sebastian Turismo Saria.

Igandea. 17:30. Hipodromoa, Donostian.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Herritarrak kide dituzten Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako Igogailuak VI. Bilboko Banderari aurre egingo diote.

Larunbata. 17:20. Bilbo (Bizkaia).

Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako Igogailuak ontziek III. Sestaoko Udala bandera lehiatuko dute.

Igandea. 11:25. Sestao (Bizkaia).

ERRUGBIA

OZEANIAKO BIRA

Alex Saleta herritarra kide duen Espainiako Selektzioak Samoaren aurka neurtuko ditu indarrak.

Larunbata. 05:00. Apia Park, Samoan.

LASTERKETA

KARMENGO JAIK 5K

Herritar talde batek III. Karmengo Jaiak 5K proban parte hartuko du.

Igandea. 09:30. Trintxerpen.

MENDI LASTERKETA

EHUN MILAK

Ehunmilak, G2handiak eta Murumendi maratona lehiatuko dira asteburuan.

Ostiralek igandera. Beasainen.

Herriko atletak Malagan eta La Nucian lehiatu izan dira

Herriko ordezkariak 18 urtez azpiko zein Federazioen arteko Espainiako txapelketan parte hartu dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak maila ezberdinetako Espainiako txapelketak lehiatu zituzten hilaren 6an eta 7an. Ostadar SKTko Oinatz Almagro eta Iraia Alkorta 18 urtez azpiko txapelketa jokatu zuten Malagan (Andaluzia); taldekide Naroa Furundarenak eta Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek, aldiz, Euskadiko selekzioarekin Federazioen arteko txapelketan parte hartu zuten, La Nucian (Alacant).

Astebete ez zen igaro La Nucian Naroa Furundarenak absolutu mailako Espainiako txapelketan laugarren postua eskuratu zuenetik eta herriko atletak, berriro ere, Alacanteko herrira egin zuen bidaia. Oraingoan Euskadiko selekzioa kide modura borrokatu zen herritarra Federazioen arteko Espainiako txapelketan.

Proba bakarrari egin zion aurre oraingoan Furundarenak, jauzi hirukoitza eta 12,87 metro-



Oinatz Almagro eta Iraia Alkorta, Malagan Ostadar SKTko banderarekin. O. ALMAGRO

ko jauziarekin bigarren postua eskuratu zuen.

Ez zen lasarteoriatar bakarria izan; Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek 4x100 m. errelebo

ere, Donostia Arraun Lagunak altxa zuen garaikurra.

Lugañene hasieratik nagusi izan zen. Zibogaren bost segundoko aldea atera zion Donostiarrari eta helmugan 10.41,82 denbora egin zuen.

Lehen txandan garailea aldatu zen, ordea; Ama Guadalupekoa izan zen estropadako buru eta 11.04,14 eginez, saioa irabazi zuen. Azkenean, bosgarren amaitu zuen jardunaldia.

Era horretara, herriko ordezkarien ontziek euren postuak mantendu zituzten Euskotren Ligan. Donostia Arraun Lagunak buru da 32 punturekin eta Hondarribia Bertako Igogailuak bosgarren (17 p.).

Bizkaia aldean jarraituko dute ligako lehia hilaren 13an eta 14an; Bilbon zein Sestaon izango dituzte jardunaldiak herriko kideak dituzten traineruek.

Euskadi zortzigarren sailkatu zen txapelketan; guztira 368,5 puntu eskuratu zituen.

Ezin finalera sailkatu

Ostadar SKTko Oinatz Almagro eta Iraia Alkorta, aldiz, Malagan izan ziren 18 urtez azpiko Espainiako txapelketan. Biek hilaren 6an izan zuten proba Malagako Hiria estadioan.

Alkorta goizean 100 m. lasterketako lehen sailkapen proban parte hartu zuen eta 12,38 markarekin ezin izan zuen finalerdirako txartela eskuratu.

Arratsaldean Almagrok ere ez zuen jauzi hirukoitzeko zortziko finalera iristea lortu. Bigarren saiakean 12,80 metroko jauzia egin eta hamabigarren amaitu zuen lehia.

Arratsaldeko saioak lehia ederrekin hasi dira

Uztaila hasterekin batera, Donostiako Hipodromoan igande arratsaldeko saioak hasi dira. Belle Epoque-ra itzuli da instalazioa eta Lasarte-Oriako Lagunilla zalditegiak eskuratu du saria. Nicolas De Julian gidariak eta Corredores Agrupados zalditegiak ere eraman dituzte sariak

Txintxarri

Udako arratsaldeko jardunaldiak hasi dira Hipodromoan. Hilaren 7an, Belle Epoque-ra itzuli zen instalazioa eta denetariko lasterketak ikusi ahal izan ziren, hala nola, Lasarte-Oriako Lagunilla zalditegiaren garaipena.

Herritarrek Jose Luis Borrego-Port Galland bikoarekin eskuratu zuten eguneko bigarren saria, Belle Epoque saria. Azken 200 metro zirraragarriak izan ziren. Port Galland aurretik zihuan arren, Chiquitin bere parean jarri zen eta bien arteko lehia bizia izan zen. Batera iritsi ziren helmugara eta argazkiari esker jakin zen garailea, Port Galland.

Beste protagonista batzuk ere izan ziren arratsaldeko saioan, Nicolas de Julian jockeya batetik eta Corredores Agrupados zalditegia bestetik. Biek bina saria irabazi zituzten, bata elkarrekin. Jardunaldiko azken saria izan zen hori, Ayerdi Bitxitegia. Julianek Sir Polo zaldiarekin eraso ederra egin zuen



Lagunilla zalditegiako Port Galland eta Chiquitin, borrokan. ISAAC FARRE RICO

zuzenguneko azken metroetan eta erraz irabazi zuen.

Jockey madrildarrak Hipotour saria ere eskuratu zuen Katara behorarekin batera. Ongi kokatua joan zen bikoa lasterketa osoan eta azken zuzengunean erraz aurre hartu zien aurkari guztiei. Helmugara bakarrik iritsiz gailendu zen.

Corredores Agrupados zalditegiak, aldiz, Jaime Gelabert eta Sir Edward-en eskutik lortu zuten Viura Hotela saria. Arratsaldeko hirugarren sarian, Bugatiko bihurtunetik

ateratzerakoan, buruan zeuden Passingshot eta Camargo bata bestea jo eta biak lurrera joan ziren. Ondorioz, atzetik zihuan taldetxoak borrokatuko zuen saria. Sir Edward-Gelabert ongi kokatuak zeuden barruko makilean; zuzengunean pixkanaka aurre hartu eta garaipena erdietsi zuten.

Horren guztiaren aurretik, Nagore Otaño Oroimenezkoak eman zion hasiera jardunaldiari; Gonzalo Pineda-Amtiyaz izan ziren nagusi hasieratik amaierara.



Lau sarituak udal ordezkari eta beste lehiakideekin. T. ALONSO

Iñaki Garciak berriro jantzi du Squash lehiaketako txapela

Iker Cañedoren aurka jokatu du Squash txapelketa sozialeko finala. Hirugarren postua Kinin Calvok eskuratu du

Txintxarri

Maialen Chourraut kiroldegiko squash kantxetan 41. Squash txapelketa sozialeko azken neurketak lehiatu ziren ekainaren 15ean. Apirilean hasi zen lehiaketa eta azken jardunaldian kontsolazio finala, hirugarren postua eta finala ziren jokatzekoak. Lehen partida ez zen jokatu, ordea; Aitor Fernandez eta Roger Hildagoren arteko norgehiagoka bertan behera geratu zen Fernandezek ezin izan zuelako hitzorduan egon.

Hirugarren postuko lehiakideak eta final handikoak, aldiz, prest egon ziren euren partidetarako. Iazko protagonista berak

izan ziren, baina batzuk neurketa ezberdinari egin behar izan zioten aurre. Hau da, iazko finalista Kinin Calvok Ander Huegun izan zuen aurkari hirugarren postuko borrokan. Eta 2023an podiuma osatu zuen Iker Cañedok finala jokatu zuen irabazle Iñaki Garciaren aurka.

Pilotakada azkarrak, dejadak... lehia estua izan zen irabazteko, baina esperientzia gailendu zen. Calvok hirugarren postua eskuratu zuen eta Garciak, aldiz, txapela jantzi zuen.

Sari banaketan, besteak beste, Goizalde Pildain kirol zinegotzia eta Agustin Valdivia alkatea izan ziren.

Herriko taldeak, ezin Donosti Cupeko finalerara iritsi

Texas Lasartearra FC zein Ostadar SKT taldeek Champions eta Europa League faseak jokatu dituzte

Txintxarri

Ez da posible izan. Lasarte-Oriako futbol taldeak ezin izan dira Donosti Cupeko finalerara iritsi.

Multzoko fasea amaitu ostean, Ostadar SKTko zein Texas Lasartearrako ordezkari gehienak -B19, B16, B14, B13, B12 eta B11 mailatako taldeak- Europa Leaguea jokatu zuten; talde bakarra izan zen Champions Leaguea lehiatzen, Ostadar SKTko B15a. Baina lehen kanporaketan, neurketa ongi borrokatu arren, Tolosak lehiaketatik kanpo utzi zuen.



G17ko finalerdiko irudia. TXINTXARRI

Gainerako taldeek ere ez zuten zorte hobirik izan. Final zortzirenetan edo lehenago kaleratu zituzten euren aurkariak eta B19 mailako taldeen kasuan, bai Texas Lasartearrak baita Ostadarrek ere borroka bera izan zuten Urnieta KE. Ondoko koadroan ikusi daitezke herriko talde ezberdinek jokatutako azken neurketa eta emaitza.

Michelinen lehiak

Lasarte-Oriako Michelin kirolgunean lehen zein bigarren faseetako partidak gozatu ahal izan da hilaren 2ti 6ra. Champions Leagueko finalak Reale Arenan jokatu baziren ere, finalerdiak hainbat zelaietan lehiatu ziren. Lasarte-Orian, G17 mailako North Coast FC-Sporting Clube Portugal neurketa izan zen; portugaldarrak sailkatu ziren finalerako, 0-2 gailenduz.

B19

- Europa League - 1/16 Rear Sports HUE 6-5 Ostadar SKT
- Europa League - 1/8 Texas Lasartearra CF 2-4 Futbol Teknika A

B16

- Europa League - 1/8 Urnieta KE 1-0 Ostadar SKT
- Europa League - 1/16 Texas Lasartearra CF 0-3 Urnieta KE

B15

- Champions League - 1/32 Tolosa CF 3-2 Ostadar SKT

B14

- Europa League - 1/32 Ostadar SKT 1-0 FC Rive Droite 33

B13

- Europa League - 1/8 Ostadar SKT 0-4 CFA Espluguenc

B12

- Europa League - 1/32 433 Academy 3-0 Ostadar SKT

B11

- Europa League - 1/16 Texas Lasartearra CF 1-5 Set 11 Esports

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteak, bikain

Buruntzaldea IKTko infantil eta alebin mailako igerilariak Euskal Herriko txapelketari egin diote aurre azken hilabeteen. Infantilak bikain jardun dira; dominak, markak zein Espainiako txapelketarako gutxieneko berria gehitu dituzte taldeko poltsara

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak lehiatzen dira. Nahia Zudairek Zaragozako Hiria Nazioarteko trofeoan parte hartu zuen hilaren 6an eta Euskal Herriko txapelketa lehiatu zuten infantil eta alebinek ekaina amaieran. Infantilek lan ederra egin zuten, besteak beste, hamar domina jantzi, marka pertsonalak ondu eta 4x200 m. libre errelebo Espainiako txapelketarako gutxieneko eskuratu zuten.

Igeriketa taldeko Kimetz de la Cruz, Ibon Elola, Oihan Matute, Iñaki Garcia eta Mario Amantegi kideek ekainaren 29an eta 30ean lehiatu zuten infantil mailako Euskal Herriko txapelketa, Galdakaon (Bizkaia). Boskoteak ederki egin zuten aurre proba ezberdinei eta podiumera igo ziren hamar bider (ikus koardoa).

Marka pertsonal ugari ere ondu zituzten eta taldeko arduradunek nabarmendu dutenez, mutilen



Eskean, infantil mailako igerilariak, dominekin eta eskuinean, Ixaso Iparragirre. BURUNTZALDEA IKT

taldekako sailkapenean podiumetik hemeretzi puntu eskasera geratu ziren.

Erreleboa, sailkatua

Horrez gain, Iñaki Garcia, Ibon Elola, Mario Amantegi eta Oihan Matute laukoteak hilaren 18tik 21era Sabadellen (Katalunia) ospatuko den Infantil Mailako

Udako Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuen 4x200 libreko errelebo proban.

Buruntzaldea IKTko prestatzaileek azaldu dutenez, "azken aldian infantilen erreleboetan ikusi dugun hobekuntzarekin, taldea estatu mailan egon zitekeela amesten hasia zegoen jada, gutxienekoak gertu baitzeuden".

Urrea

- Oihan Matute: 800 m. libre.
- Iñaki Garcia: 50 m. libre, 100 m. libre eta 100 m. bizkar.

Zilarra

- Iñaki Garcia: 200 m. lau estilo.
- 4x200 m. libre erreleboa.
- 4x100 m. libre erreleboa.

Brontzea

- Ibon Elola: 50 m. bizkar.
- Oihan Matute: 200 m. libre.
- 4x100 m. lau estilo erreleboa.

Markaren lorpena ederki ospatu zuten ere onartu dute: "Momentu benetan polita bizi izan zuten denek igerilekuan, igerilari, guraso zein entrena-tzaileak pozarren ospatu baitzuten eta horrelako lorpen batek askotan bakarkako lorpenak baino poz gehiago ematen baitute".

Era horretara, igeriketa taldeko lau kideek Espainiako Udako Txapelketa izango du denboraldiko azken hitzordua; Kimetz de La Cruzek oporrak hartuko ditu. Erreleboaz gain, Oihan Matute eta Iñaki Garcia ere bakarka lehiatuko dira lehiaketa horretan. Matutek 400 m.

libre proban egingo du igeri eta Garciak, aldiz, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre eta bizkar erako 50 m. eta 100 m. probetan lehiatuko da. Beraz, ordura arte lanean jarraituko dute lauek.

Alebin maila

Ekainaren 22an eta 23an, aldiz, alebin mailako Euskal Herriko txapelketa jokatu zen, Tolosako Usabal kirolegian eta ordezkarri bakarra izan zuen Buruntzaldea IKTk, Ixaso Iparragirre.

Ikasturteko azken lehiaketan bere onena eman zuen Lasarte-Oriako igerilariak. Lau probatan egin zuen igeri gazteak eta hirutan bere markak ondu zituen. Lehiatutako lehen proban -100 m. lau estiloko proba motza-marka pertsonala ondu ezin izan bazuen ere, gainerako hiru probetan lortu zuen denbora hobetzea. Hauek izan ziren bere markak: 100 m. lau estilo, (01.25,77), 50 m. bizkar (38,16), 200 m. bizkar (02.55,73) eta 200 m. lau estilo (03.03,78).

Jokoak prestatzen

Bestalde, hilaren 6an, Zaragozako Hiria Nazioarteko trofeoan lehiatu zen Nahia Zudaire.

Parisko Paraolimpiar Jokoak prestatzen ari da zubietarra eta 100 m. libre proban egin zuen igeri Zaragozan (Aragoi). Sailkapen proban 01.11,43 marka egin zuen eta finalean, aldiz, 01.10,63. Probako bigarren eta bere mailako lehen sailkatu zen.

Xabat Martin herritarrak denboraldi ederra egin du

Infantil mailako Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketak irabazi ditu. Espainiako txapelketan ere lehiatu da

Txintxarri

Eskolarteko mailako Espainiako txapelketa lehiatuz eman dio amaiera Xabat Martin herritarrak denboraldiari. Infantil mailako Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketan izan da eta lasterketa gehienetan lehen postuan izan da Andoaingo Txirrindulari Eskolako kidea.

Otsailean hasi zen errepideko lehiaketen denboraldia. Eskolarte mailako kideek otsailaren 24an eman zioten hasiera eta maila horretan lehiatu da Andoaingo Txirrindulari Eskolan dagoen Xabat Martin herritarra.



Martin, Euskadiko podiumean. ANDOAIN TXE

Hainbat probatan parte hartu du Martinek -Andoain, Zegama, Segura, Urnieta, Zaldibi, Beasain edo Zizurkil- eta gehienetan po-

diumeko lehen mailara igo da herritarra. Maiatzean jokatu ziren infantil mailako Gipuzkoako txapelketan (maiatzak 5, Irun) eta Euskadiko Kirol Jokoetan (maiatzak 26, Sondika, Bizkaia) ere garaile izan zen.

Uztailaren 5ean, Avilesen (Asturias) izan zen lehiaren errepideko Espainiako txapelketan Euskadiko selekzioarekin eta tropel nagusian helmugara sartuz, bederatzi-garren amaitu zuen lehia. Egun bat geroago ginkana proban ere parte hartu zuen.

Talde berean baina kadete mailan Luken Garmendia herritarra dabil lehiatzen. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba zein Nafarroako lasterketan parte hartu du txirrindulari gazteak; Euskadiko txapelketan ere izan zen maiatzaren lehen. Eta oraindik denboraldia amaitzeko proba batzuk geratzen zaizkio.

Carbayeda, Espainiako txapelketan

Caja Rural-Alea taldean dabilen Beñat Carbayeda herritarra Euskadiko selekzioko kide izan zen errepideko 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan. Ekainaren 22an jokatu zen lasterketa Galapagarren (Madril).


Lasterketako zati handi batean 35 txirrindularietako ihesaldia izan zen. Besteak beste, Euskadiko selekzioko hainbat kidek osatutako talde txobat bat horien artean, lasarteoriatarra. Zirkuitu motzera aldatzeko, Abantos mendiko igoerak eta taldean izen ziren eraso ezberdinek tropela zatitzea ekarri zuen eta helmugara banaka edo talde txobat iritsi ziren txirrindulariak. Carbayedak 03.52.20 denbora egin zuen helmugan.

Ekainaren 8an, aldiz, Euskadiko txapelketan ere parte hartu zuen eta lehen taldeetik 24 segundora iritsi zen tropel nagusian sartu zen herritarra. Eta Caja Rural-Alea taldearekin hainbat lasterketan izan da lehiatzen azken hilabeteen, hala nola, Ayeguin (Nafarroa), Murgian (Araba) edo Montañes zirkuituan (Kantabria); lehenengoan taldeko saria eskuratu zuten.



Carbayeda (erdian, betaurrekoekin), Euskadiko selekzioarekin. RFE

ZORION AGURRAK



Joanes
Zorionak Joanes! Zu zara gure etxeko musikari, antzerkilari eta festa jartzailea. Gogotik ospatuko dugu zure hirugarren urtebetetzea!!



Aimar
Zorionak maitia! Ez dadila zure irribarra inoiz aldatu. Infinito maite zaitugu. Zure gurusoak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 13	DE MIGUEL
IGANDEA, 14	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 15	DE ORUE
ASTEARTEA, 16	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 17	LASA
OSTEGUNA, 18	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Lasarte-Oria Bai! kroseko izen ematea, martxan

Ostadar SKTk Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia 27. edizioko izen emateak zabaldu ditu. Urriaren 27an, goizeko 10:30ean jokatuko da proba. Horrekin batera, Roller lasterketako seigarren edizioa eta Ipar Martxako laugarrena ere lehiatuko dira. Eta egunari amaiera emateko, Korrika Festaren 22. edizioa ospatuko da.

Momentuz kros herrikoia, patinatzaileen eta ipar martxalarien inkripzioa bakarrik egin daiteke internet bidez, *kronoak.com* web orrialdean. Urriaren 18tik 25era Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian izena ematea egiteko aukera izango da eta urriaren 26an eta 27an, Michelin kirol gunean; Korrika Festaren inkripzioa ere data horietan egingo da.

Helduen izen-emateak 15 euroko balioa du; Ostadarreko bazkideentzat, 10 euro. Azkeneko egunerako uzten dutenek –kasu guztietan–, 23 euro ordaindu beharko dute. Korrika Festako parte hartzaileek, aldiz, 7 euro ordaindu behar dute.

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 12



Larunbata, 13



Igandea, 14



Astlehena, 15



Asteartea, 16



Asteazkena, 17



Osteguna, 18



SUDOKUA

	5		3	6			9	
			8	4		7	6	
			2				5	
1					3	8		
	8					5	1	6
	7	9				2		
6	3	5						
2		7	5					3
			1	3	7			5

Sudoku10.net

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plaza dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldezu deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA
17 urteko neska euskaldun bat naiz, Babxilergoa egiten ari dena Zientzia alorretik. Udan zehar haurrak zaindu eta eskolak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.
21 urte ditut eta udan haurrak zaintzeko lan bila nabil. Interesa izanez gero harremanetan jarri zaitezke, 634 41 95 78.

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldean, garbiketala lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketala lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, biminia edota ekonomiketarako. Eskatu ostan etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatazaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdallete, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Aimar Hernandez eta Ander Hazas.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Erakusketa

Mari Jose Martin *Alma Guida* artistaren zenbait margolan ikusgai jarri dituzte.

Jalgi kafe antzokia, 10:00etatik 22:00etara.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Ganso&Cia konpainiak *Welcome&Sorry* antzezlanaren emanaldia egingo du, Kale Antzerkia Bultzatzuz zikloaren barruan. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan egingo dute emanaldia.



LASARTE-ORIA Meza

La Esperanza auzo elkarteak jakinarazi du Karmengo Ama Birjinaren eguna ospatzeko herri meza bat aurrera eramango dutela. Herritarrak gonbidatu dituzte elizkizunean parte hartzera.

Karmengo Ama Birjinaren eliza, 12:00etan.

ASTEARTEA 16

LASARTE-ORIA Meza

La Esperanza auzo elkarteko kideek jakinarazi dute herri meza egingo dutela Karmengo Ama Birjinaren eguna ospatzeko.

Karmengo Ama Birjinaren eliza, 12:00etan.

OSTEGUNA 18

LASARTE-ORIA Zinema

Udako zikloko bigarren emanaldia aurrera eramango du Okendo Zinema Taldeak: *Indiana Jones y el dial del destino*. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Okendo plaza, 22:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan egingo dute emanaldia.

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Antzerkia

Barsanti Teatroa taldeak *Lanean jarraitu 75 urterarte!!!* antzezlanaren emanaldia egingo du, Kale Antzerkia Bultzatzuz zikloaren barruan. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan egingo dute emanaldia.

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Azoka

Santa Ana egunaren aurrekari gisa 39. Artisautza Azoka aurrera eramango dute. Ohi bezala, postu ugari jarriko dituzte artisauek: janaria, ukenduak, arropa, eskuekin egindako tresneria, eta abar.

Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Santa Ana eta San Joakin eguna ospatzeko egitaraua prestatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean:

11:00etan, Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Gero, luntxa egingo dute.

12:00etan, Erketz EDTren dantza saioa, Santa Ana karkaban.

18:30ean, parodian parte hartuko duten kideen desfilea, herrian barrena. Hauxe da egingo duten ibilbidea: Jalgi kafe antzokia, Tajamar biribilgunea, Kale Nagusia (Ilargitik Arkuperaino) eta Okendo plaza, Gure Etxea paretik sartuta.

20:00etan, Santa Ana eguneko parodia umoretsua, Okendo plazan.

Ikasturtearen errepasso umoretsua egingo dute, urtero bezala.

11:00etatik aurrera, herrian barrena.



ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasartearra elkarteak Bazkidearen Eguna aurrera eramango du San Inazio Egunean, elkartearen martxan jarri zutenetik 51 urte bete direla ospatzeko. Zuzendaritzak luntxa, hildako bazkideei aitortza, trikipotea eta bazkaria antolatu ditu. Ekimen horietan parte hartu nahi duten bazkideek hilaren 25a baino lehen izena eman behar dute. *Lasartearra elkartearen egoitza (Erribera kalea, 10), egun osoan zehar.*

ZINEMA



LABURPENA

'Indiana Jones y el dial del destino'

Zuzendaria: James Mangold. **Gidoia:** James Mangold. **Argazkia:** Phedon Papamichael. **Ekoizleak:** Lucasfilm, Amblin Entertainment, Paramount Pictures. **Herrialdea:** AEBak (2023).

Iraupena: 154 minutu. **Generoa:** Abentura. **Aktoreak:** Harrison Ford, Mads Mikkelsen, Phoebe Waller-Bridge, Antonio Banderas, Karen Allen, Boyd Holbrook.

Indiana Jones arkeologoa (Harrison Ford) denboraren joanaren aurka lehiatuko da berriz ere, kondairazko dial bat berreskuratzeko abenturan. Tramankulu horrek historia alda dezake eta horregatik da hain baliotsua. Bideari ekin bezain pronto arerio ugari aurka borrokatuko da protagonista, besteak beste, Jurgen Voller-en aurka (Mads

Mikkelsen), NASA agentziarentzat allean ari den nazi baten kontra.

Indiana Jones y el dial del destino izango da Okendo Zinema Taldeak aurtengo kurtsoan emango duen azken filma. Uztailean kalera atera ohi ditu proiektzioak, herritarrek aire zabalean goza dezaten zazpigarren arteaz. Sarrera doakoa da.

ANTZERKIA



LABURPENA

'Welcome&Sorry'

Zuzendaria: Gorka Ganso eta Cecilia Paganini. **Gidoia:** William Shakespeare. **Argazkiak:** Asier Bastida, Ane Jareño. **Eszenografia:** Argon Ediskrap. **Jantziak:** Portota's Mode.

Kaleko ikuskizun bat da *Welcome&Sorry*, obra klasiko handiak parodiatzetik eta horien estereotipoetatik antzerki lanbidea nolako den erakusten duena: keinu bidezko clown komedia bat.

Antzerkiaren bi maitalek William Shakespeare-ren *Hamlet* antzetzuko dute, jatorrizkoarekiko leialtasunez. Dozena bat artista eta teknikariren lana egin behar izatea, trebetasunik gabe, ez da oztopo izango. Edo bai?



Sutan erretzera kondenatuko ote dituzte aurtengo akusatua? Erantzuna, hilaren 26ko parodian. TXINTXARRI

Usadioa, kultura eta umorea dira osagaiak

Santa Ana eta San Joakin eguna izango da hilaren 26a, ostiralarekin. Hori ospatzeko egitaraua prestatu du Ttakun Kultur Elkarteak, udalaren laguntzarekin. Besteak beste, parodia egingo dute; entseatzen hasi dira eta saioak irekiak direla jakinarazi dute

Txintxarri

Santa Ana karkaban ikurrina jartzen dutenean hasiko dira hilaren 26ko ospakizunak, goizeko bederatzietan. Horren ostean herri meza eta luntxa, Erketz EDTren dantzaldia, aktoreen desfilea eta parodia umoretsua antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Egitarauari buruzko xehetasun guztiak 15. orriko *Agenda* saillean jaso ditugu.

Manuel Sagardiaren eskutik aurrera eraman zuten aurreneko parodia duela 74 urte. Pasa dira hamarkadak eta aldatu da herria goitik behera, baina ez ikasturtero bertan gertatzen direnak umore ukitu batekin erreparatzeko ohitura. Aurtengo emanaldiaren gidoia Pablo Barriok eta Juan Luis Eizmendik idatzi dute eta aipatzeko moduko gaiak ez zaizkie falta izan. 50 bat herritarrek egingo dituzte aktore lanak eta antolatzailerak nabarmendu dute amateurrek direla denak, hau da, ez dagoela profesionalik taldean.

Edonola ere, horrek ez du esan nahi aktoreek euren zeregina

serio hartu ez dutenik. Are gehiago, hasi dira dagoeneko esketxak prestatzen, kultur etxean. Hurrengo saioak gaur (hilak 12), hilaren 15etik 19ra eta 22an, 23an eta 24an aurrera eramango dituzte, 18:00etatik 20:00etara. Par-taideek nabarmendu dute entseguak irekiak direla eta edonor anima daitekeela eurekin aritzera. Baten batek parte hartu nahi badu Ttakunen bulegotik pasa daiteke astelehenetik ostiralera (09:00etatik 15:00etara), kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatz dezake edo 695 78 53 89 telefono zenbakira WhatsApp mezu bat bidali.

Islada Ezkutatuak

Okendo plazan izango den parodiaren aurretik oroimen historikoa azaleratzeko lanean ari den Islada Ezkutatuak taldea omenduko dute. Oroigarri bat jasotzeaz gainera bertso eder batzuk abestuko dizkie Lierni Rekondo bertsolariak.

Santa Ana eta San Joakin eguneko ospakizunen antolatzailerak herritarrek animatu dituzte antolatutako jardueretan parte hartzera.

uztailak 26

11:00etan

Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostean, luntxa.

12:00etan,

Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

18:30ean,

Desfilea herrian barrena

20:00etan,

Santa Ana parodia.
Okendo plazan*

* Eguraldi txarra eginez gero Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da.